**Batzar Nagusiko Akta**

2024ko ekainaren 17a

| | | |
|---|---|---|
| **Bildutakoak:** | | Akta Zenbakia **00000001** |
| **Hernaniko Udaletik** | Patxi Ibarguren Etxeberria<br>Xabier Lertxundi Asteasuinzarra | Eguna **2024/06/17** |
| **Lasarte-Oriako Udaletik** | Nuria Fernández Castrillo<br>Jon Antxordoki Rekondo | Iraupena **-** |
| **Andoaingo Udaletik** | Andoni Álvarez Lete<br>José Mª Iparraguirre Balda | |
| **Astigarragako Udaletik** | Xabier Urdangarin Lasa<br>Ainara Vázquez Martinez | |
| **Urnietako Udaletik** | Jorge Segurado Iriondo<br>Consuelo Frutos González | |
| **Usurbilgo Udaletik** | Iratxe Begiristain Otegi<br>Agurtzane Solaberrieta Mesa | |

**Asistentzia teknikoa*:***

| | |
|---|---|
| **Idazkari-Kontuhartzailea** | Julen Mungia Gorrotxategi |
| **Zuzendaria** | Helene del Río Laboa |

**Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:**

ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58

## Gai Zerrenda

1.- 2023/12/11(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

2.- Onartu 2024ko lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoaren aldaketa, bai akatsen zuzenketa bai Turismo Teknikariaren plazaren eta lanpostuaren sorrera onartzen dituena.

3.- 2023. Urteko Kontu Orokorren onarpena

4.- Galdera, erregu eta proposamenak.

1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 11/12/2023.

2.- Aprobar la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo y Plantilla Orgánica de 2024por la que se aprueba tanto la rectificación de errores como la creación de la plaza y puesto del/la Técnico/a de Turismo.

3.- Aprobación de las Cuentas Generales de 2023

4.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

1.- **<u>2023/12/11 (e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.</u>**

Lehendabizi, 2023/12/11 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Batzorde Orokorrak aho batez ontzat eman du.

**2.- <u>Onartu 2024ko lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoaren aldaketa, bai akatsen zuzenketa bai Turismo Teknikariaren plazaren eta lanpostuaren sorrera onartzen dituena</u>**

Lehendakariak aurreratu du ostiral eguerdian email bat jaso genuela denok Jorgeren aldetik, eta ondoren Nuriarena ere ildo beretik zihoana, eskatuz gai-ordeneko 2. puntu hau bertan behera uzteko eta ez eramateko bozkara. Horregatik, hori azaldu ondoren, hitza eman die bi horiei beraien eskaera gehiago azaltzeko aukera izan dezaten.

Jorgeren arabera 2. enpresa-teknikariaren postua Plantillan falta izatea ez du uste akatsa denik. Esan du aurreko legealdian eta Mankomunitatearen sorreran bi linea egon zirela, bata EH Bilduk osatutakoa eta bestea EAJ-PSOErena. Lehenengo taldeak langileak ekarri nahi zituztela esan du eta gero ikusi zer lan egin dezaketen eta bigarrenek, berriz diote lehenengo zein lan egin behar diren aztertu behar direla eta gero horren arabera, langileak kontratatu. Hortaz, EAJk ez duela Plantillan aldaketarik ikusten esan du, ez omen delako akatsa.

Nuriak esan du iritzi bera duela.

Patxik esan du Turismoko lanpostua hasieratik aurreikusia zela (aurreko legealdian ere bai) eta, gainera, azpimarratu du GFAk 50.000€ inguruko dirulaguntza eskaintzen duela, hau da, langile horren gastuaren gehiengoa.

Jorgek dio gaia hobeto aztertu behar dutela eta horretarako denbora eta informazio gehiago behar dutela. Esan duenez, ez dakite Turismoko langile honek zehazki zer lan egin behar duen eta jardunaldi oso baterako ematen duen lankarga horrek.

Idazkari-Kontuhartzaileak erantzun dio Jorgeri Plantilla Organikoan gertatu dena bai dela akatsa eta arrazoitu du esanez 2022n, Mankomunitatea sortu zenean, bai Plantillan eta RPTn 2 enpresa teknikari aurreikusten zirela eta RPTn 2023 eta 2024 urteetan ere horrela onartu dela. Horregatik, Plantilla Organikoan enpresa teknikari bakarra jasota egotea 2023n gertatu zen zerbait zela eta 2024n akats horrekin jarraitu dela. Gainera, esan du, dakigunez, ez dela inongo erabaki politikorik hartu Plantillako egoera hori aldatzeko.

ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58

Hernaniko Xabierrek esan du Jorgek eta Nuriak eskatutako eskaintza (puntu hau bertan behera uztekoa) onartzen duela baina epemuga zehatz batekin. Hau da, gaia nahiko aurreratuta dagoelako, txosten teknikoak daudelako, iradoki du uztailean erabaki hau hartzeko moduan egon beharko ginatekeela.

Jorgek begi onez ikusi du eta esan du mahai honetan eta gai honen inguruan lanketa honekin jarraitu behar dela. Gehitu du, askotan esan duela, bere lan egiteko modua dela lehendabizi Gobernu Batzarrean gai batekin hasteko erabakia hartzea, gero mahai politiko-tekniko edo -teknikoan lantzea eta azkenik Gobernu Batzarrak behin betiko erabakia hartzea horren inguruan. Esan du Mankomunitateko Gobernuak batzuetan ez duela horrela jokatu, nahiz eta horrela jokatzeko erabakia hartu izan.

Nuriak kexa bera adierazi du, hau da, lehenego gaiak Gobernu Batzarrean lantzea eta gero mahai-teknikoan, azkenik, Gobernu Batzarrean hartzeko erabakia. Adibidez, gogoratu du bera kexatu zela Iraunkortasunaren alorrean horrela ez zelako jokatu. Hau da, ez zelako aurretiko lanketa bat egin jakiteko zehazki zer lanketa egingo dituen Iraunkortasuneko teknikariak, bere kontratazioa ondo baloratzeko.

Patxik erantzun dio gogorarazten aurreko legealdian bera egon zela Lehendakaritzan eta Iraunkortasun teknikaria ekartzeko aurreikuspena orduan egin zela. Beraz, galdetu dio ea zer aurre-lanketa egin zuten horretarako.

Nuriak horri erantzun dio esanez, lehendabizi, Lehendakariordea zela, ez Lehendakaria eta bigarrenik gaia Gobernu Batzarrera eraman zutela.

Astigarragako Xabierrek gogorazi du gauza bat dela orain onartzea Plantilla handitzea eta beste bat hura betetzea. Gainera, gehitu du esanez helburua dela Mankomunitateak funtzionatzeko plantilla minimoa osatzea, ondoren datozen erronkei aurre egin ahal izateko nahikoa “mukulo” izan dezagun. Benetan, eskualde osoko pertsonengana eta enpresengana iritsi nahi badugu, plantilla minimo bat behar dugula dio eta oraindik hori ez dugula. Adibidez, Tokiko Enplegu Ekintzekin gertatzen den moduan, momentu batean ateratzen da deialdia eta hilabete daukazu bertan parte hartzeko eta proiektu bat eskaintzeko eta handik gutxira (abenduan) langileak kontratatuak izan behar dituzu. Hori adibide bat besterik ez dela esan du, baina horrelako erronkei eutsi nahi badiegu, nahikoa balibide izan behar ditugula dio. Gainera, gehitu du gure eskualdea Urola Kostakoa baino handiagoa eta biztanle eta enpresa gehiago dituela, eta Urola Kostako Mankomunitateak guk baino askoz ere plantilla handiagoa duela, nahiz eta gure beharrak, printzipioz, handiagoak izan.

Agurtzanek zalantzan jarri du ea komenigarria den lehenago definitzea zer egin, gero baliabideak zein diren aukeratzeko. Dagoeneko gauza asko daudela egiteko esan du eta ez dugula baliabiderik hori egiteko. Turismoaren inguruan, seguraski, Behemendik egiten duen lana nahikoa ez dela esan du eta arazo hori konpondu behar dugula. Gainera, azpimarratu GFAk 50.000€ inguruko dirulaguntza ematen digula langile bat %100n turismoan

ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58

aritzen bada, eta diru horri uko egiteko tokian ez gaudela esan du. Horregatik, ados agertu da Hernaniko Xabierrek esan duenarekin eta puntu honen hausnarpenari epemuga bat jartzeko (lehen aipatu bezala, uztailean izatea ondo deritzo). Bestalde, azpimarratu du batzuetan epemugak ez ditugula guk ipintzen, baizik eta dirulaguntzek adibidez. Bukatzeko, Gobernu taldearentzako konfidantza gehiago eskatu du.

Zuzendariak gehitu du GFAk ematen duen dirulaguntza izenduna dela eta bakarrik ematen duela eskualdeko turismo erreferente den entitateari, eta horretarako pertsona bat egon behar dela lanean jardunaldi osoan (edo bi erditan behintzat). Honetaz gain, adierazi du 2025eko urtarrilerako kontratatua egon beharko lukeela. Azkenik, esan du, nahiz eta saiatu, askotan Behemendi ez dagoela Mankomunitatearen gidaritzapean, harremanak beraiek dituztelako eta EJ eta GFAren aurrean lidergoa ere beraiek onartua dutelako (nahiz eta eskumena gure estatutuen arabera gure gain egon).

Jorgek galdetu du ea badakigun zenbat denbora mantenduko duen GFAk dirulaguntza hori.

Astigarragako Xabierrek esan du 2 urtetarako direla dirulaguntza hauek eskualderako dela eta izenduna dela. Esan du ez dagoela jakiterik datozen urteetan zer egingo duen GFAk baina bai aitortu du azkeneko urteetan dirulaguntza hau eskaini dutela.

Jorgek esan du, adibidez, informazio hau ez duela izan orain arte.

Patxik adierazi du askotan hitz egin dugula gai honi buruz eta baloratu ditugula aukerak eta, hare gehiago, orain horrekin jarraitzen ari garela.

Jorgek galdetu du ea badagoen nahikoa lan Turismo-teknikaria lanean %100n egon dadin.

Zuzendariak esan dio eduki aldetik ez dagoela arazorik, izan ere, oraingoz gutxienez, batetik, enpresekin lantzeko lehiakortasun programak daudela eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzako Basquetourreko eta GFAko lanketa etajardunaldiak daudela. Horretaz gain, eskualderako nahi adina lanketa gehitu genitzakeela.

Patxik gehitu du lan hauek orain Behemendik egiten dituela eta horretarako 1,5 langile dituela. Hala ere, Jorgek dio ondo dagoela hori jakitea baina horrek ez duela ezer esan nahi, agian, ez baitaude ondo dimentsionatuak eginbeharrak eta giza-baliabideak.

Agurtzanek dio eskualdeko herri bakoitzak hartu duela beregain Turismoa sustatzeko ardura, ez dutelako beste aukerarik izan. Gainera, azpimarratu du luxu bat dela gaur egun horrelako dirulaguntza bati uko egitea. Gainera, Gobernu taldearengan konfidantza gehiago eskatu du eta Turismoa gai estrategikoa dela. Azkenik, gai honen inguruan epea zertxobait luzatzearen alde agertu da baina kontu handiarekin, gehiegi luzatu ez dadin, gero zailtasunak ekar baditzake, bai lan teknikoa bai administratiboari dagokionez.

ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58

Andonik gehitu du Turismoa erronka handia dela, eta geroz eta handiagoa dela, herri bakoitzak dituen baliabide propioengatik (Leitzaran, Sagardoa…) eta Donostitik oso gertu gaudelako.

Idazkari-kontuhartzaileak gehitu du Turismo teknikariaren lanpostua onartuko balitz, lan-poltsa batetik tira egin beharko genukeela (eta, oraingoz, gutxienez, ez dugu aurkitu), eta, bestela, hautaketa-prozesu bat abiarazi beharko genuke. Azkenik, partehartzaile guztiei galdetu die, orduan, ea ados dauden uztailean beste bilera bat egiteko puntu honetan erabaki bat hartzeko, eta denak alde agertu dira.

Zuzendariak gehitu du Uztailaren 8n eta 22n Gobernu Batzarreko bilera jartzeko asmoa dugula, beraz, Batzar Nagusia uztailaren 22n egin genezakeela Turismo teknikariaren lanpostua sortzeko helburuarekin. Azkenik, Patxik, hartutako erabakia gogorazi die denei (uztailaren 22n egingo dela beste Batzar Nagusia).

**3. 2023. Urteko Kontu Orokorren onarpena**

Parte hartzaile guztiak aho-batez onartu dituzte aurreko urteko kontu orokorrak.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

**4.- Galdera, erregu eta proposamenak.**

Patxik aurreratu du Mankomunitateko langileen kontratazioaren inguruan denbora-lerro bat prestatu dugula. Idazkari-kontuartzaileak bilera gelako pantaila handian jarri du prestatatukoa, non agertzen den atera behar diren Lan Eskaintza Publikoak eta horien deialdiak, bai oraingo lanpostuenak bai, hala izanez gero, lanpostu berrienak.

Jorgek galdetu dio Patxiri ea baduen planteamenduren bat lanpostu berrientzako eta Patxik erantzun dio oraingoz ezetz, berria dela hau, baina datorren Gobernu Batzarrarera ekarriko duela bere proposamena.

Lasarte-Oriako Jonek galdetu du ez al den komeni aldez aurretik hitz egitea Gobernu Batzarrera edo Batzar Nagusira horrelako gai garrantzitsu bat eraman baino lehen.

Hernaniko Xabierrek adierazi dio hitz egin eta negoziatu beharrekoa Gobernu Batzarrean egingo dela eta gero Batzar Nagusira eramango dela azken erabakia hartzera.

Patxik gehitu du deialdia bidaltzerako garaian oraindik ez zuela proposamenik eta horregatik egingo duela datorren Gobernu Batzarrean.

Nuriak dio horrelako erabakia hartzeko denbora gehiago behar duela eta informazio gehiago eta Jorgek berdina dio.

ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58

Patxik esan du ados dagoela informazio gehiago ematearekin eta horretan saiatzen dela eta, adibidez, horregatik ekartzen dituztela eragileak Gobernu Batzarrera aurkezpenak egin dezaten, batik bat, batzarkide guztiek jakin dezaten zein eragilek parte hartzen duen Mankomunitatearen programetan.

Hernaniko Xabierrek gehitu du bere ustez Gobernu taldea saiatzen dela informazioa ematen eta gardenak izaten taldekide guztiekin eta pentsatzen duela deialdi guztiek errespetatzen dutela araututa dagoen epea.

Nuriak gehitu du bera behin baina gehiagotan kexatu dela hori ez delako horrela.

Idazkari kontuhartzaileak gehitu du azaldu genuela zer gertatzen zen deialdiakin bi asteroz behin biltzen ginelako eta hori aldatzen saiatu direla azkeneko deialdietan eta gainera, deialdi honetarako aste terdiko aurrerapenarekin bidali zitzaiela denei deialdia (araututako epea baino aurrerapen handiagoa).

Jorgek bukatu du esaten eskertzen duela mahai gainea uztegatik puntu hau eta gai hau lantzen jarraituko dugula eta informazio gehiago behar badute harremanetan jarriko direla Mankomunitatearekin.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia. Idazkari-Kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

**O.E., / Vº Bº**
**Lehendakaria**

**1.- <u>Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión del 11/12/2023.</u>**

En primer lugar, tras la lectura del acta correspondiente a la sesión de fecha 11/12/2023, la Presidenta somete a votación la aprobación de la misma, que es aprobada por unanimidad por la Junta General.

**<u>2.- Aprobar la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo y Plantilla Orgánica de 2024, por la que se aprueba la corrección de errores y la creación de la plaza y puesto de Técnico/a de Turismo</u>**

La Presidenta ha adelantado que a mediodía del viernes, todos recibimos un email por parte de Jorge y luego el de Nuria que iba en la misma línea, pidiendo que se suspendiera este punto 2 del orden del día y que no se llevara a la votación. Por ello, tras explicarlo, cede la palabra a ambos para que puedan exponer sus peticiones.

Jorge considera que la falta del 2º Técnicx de Empresa en la Plantilla no es un error. Comenta que en la anterior legislatura y en la creación de la Mancomunidad hubo dos lí-

ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58

neas, una formada por EH Bildu y otra del PNV-PSOE. El primer grupo dice que querían traer personal y luego ver qué trabajo pueden hacer y los segundos reiteran que primero hay que analizar qué trabajos hay que hacer y luego en función de esto, contratar personal. Por tanto, PNV dice que no ve cambios en la Plantilla porque no es un error.

Nuria dice que tiene la misma opinión.

Patxi comenta que la plaza de Turismo estaba prevista desde el principio (también en la anterior legislatura) y además subraya que la DFG ofrece una subvención cercana a los 50.000 €, lo que supone la mayor parte del gasto de este personal.

Jorge dice que tienen que estudiar mejor el tema y que para ello necesitan más tiempo e información. Dice que no saben exactamente qué trabajo tiene que hacer este Técnicx de Turismo y si esa carga de trabajo da para una jornada completa.

El Secretario-Interventor responde a Jorge que lo ocurrido en la Plantilla Orgánica sí es un error y razona que en 2022, cuando se creó la Mancomunidad, tanto en la Plantilla como en la RPT se preveían 2 Técnicxs de Empresa y que así se ha aprobado en la RPT en los años 2023 y 2024. Por ello, que sólo conste en la Plantilla Orgánica un único técnico de empresa era algo que ocurrió en 2023 y que en 2024 se ha continuado con ese error. Además, dice que como sabemos, no se ha tomado ninguna decisión política para cambiar esta situación en la Plantilla.

Xabier, de Hernani dice que acepta la oferta solicitada por Jorge y Nuria de cancelar este punto, pero con una fecha límite. Es decir, porque el tema está bastante avanzado, hay informes técnicos, sugiere que en julio deberíamos estar en condiciones de tomar esta decisión.

Jorge lo ve bien y dice que hay que seguir trabajando en esta mesa y en este tema. Añade que ha dicho en numerosas ocasiones que su forma de trabajo es tomar el acuerdo de empezar con un tema en la Junta de Gobierno, luego tratarlo en la mesa político-técnica o técnica y finalmente tomar la decisión definitiva de la Junta de Gobierno. Dice que el Gobierno de la Mancomunidad a veces no ha actuado así, a pesar de haber tomado la decisión de hacerlo.

Nuria plantea la misma queja, es decir, tratar los primeros asuntos en la Junta de Gobierno y luego en la mesa técnica y la decisión final tomarla en la Junta de Gobierno. Por ejemplo, recuerda que ella se quejó de que no se actuó así en materia de Sostenibilidad. Es decir, porque no se hizo un trabajo previo para saber exactamente qué tareas va a realizar el Técnico de Sostenibilidad para valorar bien su contratación.

Patxi le contesta recordando que en la anterior legislatura estuvo ella misma como Presidenta y que la previsión de aportar la técnica de Sostenibilidad se hizo entonces. Por lo tanto, pregunta qué trabajo previo hicieron para ello.

ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58

Nuria responde a esto diciendo que en primer lugar era la Vicepresidenta, no la Presidenta y en segundo lugar, que el tema se trasladó a la Junta de Gobierno.

Xabier, de Astigarraga recuerda que una cosa es aceptar ahora el incremento de la Plantilla y otra el cumplimiento de la misma. Además, añade que el objetivo es completar una plantilla mínima para el funcionamiento de la Mancomunidad, de forma que podamos disponer de un "músculo" suficiente para afrontar los siguientes retos. En realidad, si queremos llegar a las personas y a las empresas de toda la comarca, dice que necesitamos una plantilla mínima y que eso todavía no tenemos. Por ejemplo, al igual que ocurre con las Acciones Locales de Empleo, la convocatoria sale en un momento y tienes un mes para participar en ella y ofrecer un proyecto y al poco tiempo (en diciembre) tienes que tener personal contratado. Dice que eso no es más que un ejemplo, pero que si queremos mantener este tipo de retos tenemos que tener recursos suficientes. Además, añade que nuestra comarca tiene más población y más empresas que la de Urola Kosta y que la Mancomunidad de Urola Kosta tiene una plantilla mucho mayor que nosotros, aunque nuestras necesidades en principio sean mayores.

Agurtzane cuestiona la conveniencia de definir antes qué hacer para luego elegir cuáles son los recursos. Dice que ya hay muchas cosas por hacer y que no tenemos recursos para hacerlo. Respecto al turismo, seguramente, dice que el trabajo que realiza Behemendi es insuficiente y que tenemos que solucionar ese problema. Además, subraya que la DFG nos subvenciona en torno a 50.000 €si un trabajador se dedica al 100% al turismo y dice que no estamos como para renunciar a ese dinero. Por eso, se muestra de acuerdo con lo que ha dicho Xabier de Hernani para poner una fecha límite a la reflexión de este punto (como ya se ha comentado, en julio le parece bien). Por otra parte, subraya que a veces no ponemos nosotros los vencimientos, sino las subvenciones por ejemplo. Por último, pide más confianza para el Equipo de Gobierno.

La Directora añade que la subvención que concede la DFG es nominativa y sólo la concede a la entidad turística de referencia de la comarca, para lo cual es necesario que haya una persona trabajando a jornada completa (o dos personas a media jornada). Añade que para enero de 2025 debería estar contratado. Por último, señala que, a pesar de haberlo intentado, en muchas ocasiones Behemendi no está bajo el liderazgo de la Mancomunidad, ya que las relaciones las tienen ellas y también tienen asumido el liderazgo ante el GV y la DFG (aunque la competencia sea nuestra según nuestros estatutos).

Jorge pregunta si sabemos cuánto tiempo va a mantener la DFG esta subvención.

Xabier de Astigarraga dice que estas subvenciones son para 2 años, son para la comarca y que es nominativa. Dice que no se sabe qué va a hacer la DFG en los próximos años, pero reconoce que en los últimos años se ha ofrecido esta subvención.

Jorge, por ejemplo, dice que esta información no la ha tenido hasta ahora.

ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58

Patxi comenta que en muchas ocasiones hemos hablado de este tema y hemos valorado las posibilidades y que, sobretodo ahora que seguimos con ello.

Jorge pregunta si hay trabajo suficiente para que el Técnicx de Turismo esté al 100%.

La Directora le comenta que no hay problemas de contenido, ya que por el momento, por un lado, hay programas de competitividad para trabajar con las empresas y, por otro, hay jornadas y elaboraciones de Basquetour, del Gobierno Vasco y de la DFG. Además, podríamos añadir tantas tareas como queramos para la comarca.

Patxi añade que estos trabajos los realiza ahora Behemendi y que para ello cuenta con 1,5 trabajadores. Sin embargo, Jorge dice que está bien saber eso, pero que eso no quiere decir nada, quizá porque no están bien dimensionadas las tareas y los recursos humanos.

Agurtzane señala que cada pueblo de la comarca ha asumido la responsabilidad de promocionar el Turismo porque no han tenido otra opción. Además, subraya que en la actualidad es un lujo renunciar a una subvención de este tipo. Además, pide más confianza en el Equipo de Gobierno y que el Turismo es un tema estratégico. Por último, se muestra partidaria de ampliar un poco el plazo en este tema, pero con mucho cuidado de que no se dilate demasiado, si luego puede plantear dificultades tanto en el trabajo técnico como administrativo.

Andoni añade que el Turismo es un gran reto y cada vez es mayor debido a los recursos propios de cada pueblo (Leitzaran, Sidra...) y a la cercanía de San Sebastián.

El Secretario-Interventor añade que si se aceptara el puesto de Técnico/a de Turismo tendríamos que tirar de una bolsa de trabajo (y de momento, al menos, no lo hemos encontrado) y en caso contrario habría que lanzar un proceso de selección. Por último, pregunta a todos los participantes si están de acuerdo en realizar una nueva reunión en julio para tomar un acuerdo sobre este punto y todos están a favor.

La Directora añade que tenemos la intención de poner la reunión de la Junta de Gobierno los días 8 y 22 de julio, por lo que podríamos celebrar la Asamblea General el día 22 de julio con el fin de crear el puesto de Técnicx de Turismo. Por último, Patxi recuerda a todos la decisión tomada (la nueva Asamblea General se celebrará el 22 de julio).

**3. Aprobación de las Cuentas Generales Anuales 2023**

Todos los participantes han aprobado de forma unánime las cuentas generales del año anterior.

ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, los siguientes acuerdos.

**4.- Ruegos, Preguntas y Propuestas.**

Patxi adelanta que hemos preparado una línea temporal en torno a la contratación de personal de la Mancomunidad. El Secretario-Interventor muestra en la pantalla grande de la sala de reuniones lo preparado respecto las Ofertas Públicas de Empleo a sacar y sus convocatorias, tanto de las plazas actuales como, en su caso, de las nuevas.

Jorge pregunta a Patxi si tiene algún planteamiento para las nuevas plazas y Patxi le contesta que de momento no, que esto es nuevo, pero que traerá su propuesta a la próxima Junta de Gobierno.

Jone de Lasarte-Oria pregunta si no es conveniente hablar previamente antes de llevar un asunto tan importante a la Junta de Gobierno o a la Asamblea General.

Xabier de Hernani le comenta que lo que hay que hablar y negociar se hará en la Junta de Gobierno y luego se trasladará a la Asamblea General para tomar la decisión final.

Patxi añade que a la hora de enviar la convocatoria todavía no tenía propuesta y que por eso lo hará en la próxima Junta de Gobierno.

Nuria dice que necesita más tiempo y más información para tomar esta decisión y Jorge dice lo mismo.

Patxi dice que está de acuerdo en que se dé más información y que lo intentan y que por ejemplo, por eso traen a los agentes a la Junta de Gobierno para que hagan presentaciones, sobre todo para que todos los junteros sepan qué agentes participan en los programas de la Mancomunidad.

Xabier de Hernani añade que considera que el Equipo de Gobierno trata de informar y ser transparentes con todos los miembros del grupo y piensa que todas las convocatorias respetan el plazo establecido.

Nuria añade que ella se ha quejado más de una vez porque eso no es así.

El Secretario-Interventor añade que ya dijimos lo que ocurría con la convocatoria porque nos reunimos cada dos semanas y han intentado modificarla en las últimas convocatorias

ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58

y que, además, para esta convocatoria se envió la convocatoria a todos con una antelación de semana y media (superior al plazo reglamentario).

Jorge concluye diciendo que agradece dejar este punto sobre la mesa y que seguiremos trabajando este tema y que si necesitan más información se pondrán en contacto con la Mancomunidad.

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno de la Presidenta, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

**O.E.,/Vº Bº**

**La Presidenta**



EKS | CSV: ESKU283c0ba2-0e7e-4f69-9f2d-7a3733661b58
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=89310*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=89310*

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2024BG010007-akta elebietan/acta bilingüe (BETERRI BURUNTZA |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: JULEN MUNGIA GORROTXATEGI - 72546623T
Data / Fecha: 2024/09/16 11:26:06

Sinatzailea 2 / Firmante 2: MARIA FRANCISCA IBARGUREN ECHEVERRIA - 72512563A
Data / Fecha: 2024/09/17 11:36:29